

Ehuneko 18,7 hazi da Arabako Foru Ogasunaren dirubilketa metatua abuztuan

Abuztuko dirubilketa metatua 1.426,2 milioi euroa izan da eta Arabako enplegua eta jarduera ekonomikoa suspertzeko joera positiboari eutsi dio

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 14a. Arabako Foru Ogasunaren dirubilketa metatua 1.426,2 milioi eurokoa izan da abuztuan, aurreko urteko aldi beraren aldean %18,7 gehiago. Hala ere, aurreko hilabeteetan bezala, zehaztu behar da dirubilketaren datu horiek ezin direla zuzenean aurreko urtekoekin alderatu, ordainketak geroratu egin baitziren familien, autonomoen, autonomoen eta enpresen finantzaketa errazteko.

Abuztuan metatutako diru-bilketak azken hilabeteetako ildo beretik jarraitzen du, eta horrek adierazten du bizitzaren esparru guztietan normaltasuna pixkanaka berreskuratzen ari dela, ekonomiaren susperraldi gero eta biziagoarekin batera.

"Bide onean gaude aurtengo bilketaren helburuak betetzeko", adierazi du ahaldun nagusiak Ogasunaren abuztuko bilketaren datuen aurkezpenean.

ZUZENEKO ZERGAK: 705,5 milioi euro (+% 15,3)

Zuzeneko zergen bidez izandako dirubilketa, guztira, 705,5 milioi eurokoa da, hau da, %15,3ko igoera aurreko urtearekin alderatuta. Hala ere, kontuan hartu behar da 2020an PFEZaren eta sozietateen gaineko zergaren kanpainetan izandako bilketa azarora eta irailera arte atzeratu zela, eta aurtengo kobratu dela sartu beharreko likidazioen zati bat.

PFEZa: 544,8 milioi euro (%17,0)

Autonomoen ordainketa zatikatuak eta jarduera ekonomikoko atxikipenak izan ezik, zerga hori osatzen duten kontzeptuek bilakaera positiboa erakusten dute, eta horrek esan nahi du enplegua hoberantz doala Araban.

Kuota diferentziala, hau da, PFEZaren aitortzenagatik itzuli eta ordaindu beharreko kuoten arteko aldea, -98,5 milioi euro izatetik -35,5 milioi izatera igaro da 2020ko abuztuko metatuan. Horrek esan nahi du % 64ko hobekuntza izan dela, hein handi batean aurtengo zerga kobratzeko epeak ohikoak izan direlako, aurreko urteko geroratzearen aldean.

SOZIETATEEN GAINENKO ZERGA: 118,5 milioi euro (%15,5)

Sozietateen gaineko zergaren kuota diferentzialaren bilketa metatua 95,8 milioi eurokoa da, aurreko urtean baino % 22 gehiago; era berean, zehaztu behar da datua ezin dela aurreko urtekoarekin alderatu, aurkezpena eta ordainketa geroratu egin zelako.

ZEHARKAKO ZERGAk: 612,6 milioi euro (% 21)

Abuztuko metatuan, zeharkako zergek % 21 egin dute gora, eta 612,6 milioi euro egin dute.

BEZa: 413,2 milioi euro (%25,1)

Zerga horren bilketa, abuztuko metatuan, %25,1 igo zen, eta 413,2 milioi eurora iritsi zen. Datu horrek erakusten du ekonomiak bilakaera ona izan duela aurreko urtearekin alderatuta, kontuan hartuta iazko ekitaldiko jarduera ekonomikoa ia geldituta edo motelduta egon zela une askotan.

HIDROKARBURUOAK: 130,2 milioi euro (% 16,9)

Hidrokarburoen gaineko zergaren bilketak ere jarduera ekonomikoaren bilakaera adierazten digu, eta jokaera ona izan du: 130,2 milioi euro bildu dira, 2020ko abuztuan baino % 16,9 gehiago.